

KABLEBARIK SA: MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure gailua batez ere bi bezero segmentuetan banatzea erabaki dugu: nerabeak eta disponibilitate handiko langileak.

Alde batetik, gaur egun, edozein nerabe ikusten dugu mugikorra eskuan duela uneoro erabilera ezberdinetarako: jolasean aritzeko, lagunekin edo familiarekin hitz egiteko, kontaktu berriak egiteko, beraien idoloak jarraitzeko, eskolako lanak egiteko, munduko albistearen berri edukitzeko etab.

Hauek dira bereziki mugikorra aunitz erabiltzen dutenak gure gizartean eta aukera paregabea izango litzateke beraientzako gure gailua txertatua duen mugikorra eskuratzea. Etxean entxufeen beharra desagertu egingo da eta benetan beharrezkoak diren gailu haiek entxufatzeko aukera izango dute, zer esanik ez beraien aurrezpen ikaragarria elektrizitate fakturretan.

Beste alde batetik, disponibilitate handiko langileak aurki ditzakegu. Hauek, beraien enpresetan komunikazio lanak egitera behartuta daudenez uneoro mugikorra eskuetan edukitzea beharrezkoa da, aldi berean, ezinbestekoa da mugikorrak batera falta ez edukitzea, ozan ere, ez dakite ziur non egongo diren mugikorra erabiltzeko orduan. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu beti mugikorra erabiltzeko aukera izatea, bai beraien lana ondo garatu dezaten eta baita haien bezeroak pozik egon daitezen beren beharrak ase ondoren.

Hau dena esanda, gailu honek gure gizartean dauden gazteenei eta langile batzuei bizitza asko errazteko aukera eskeintzen dugula uste dugu. Hori da gure asmoa, jendeari laguntzea eta haien egunerokotasuneko eginkizunak eta bizitza erraztea. Gure asmakizunarekin, gure segmentazioko bezeroei bizitza hobeto eta aske bat eman nahi diegu.